

ARAUDIA

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEKO lasterketa solidarioa

1. art.- Emakumeen nazioarteko egunaren Lasterketa Solidarioa antolatzen du, ASENNA-Nafarroako Endometriosi Elkartearen alde. Proba 2026ko martxoaren 8an izanen da, goizeko 10:00etan.

2. art.- Emakumeen nazioarteko egunaren Lasterketa Solidarioa, ASENNA-Nafarroako Endometriosi Elkartearen aldekoa, 3,8 kilometro eta 7,2 kilometroko distantziarekin, eta Sarrigurengo landa eta merkataritza inguruneak zeharkatuko ditu korrika. Zirkuitua asfaltoaren gaineko hiri ibilbidea da. Irteera eta helmuga Eguesibarko Udaletxean (Garajonay kalea, 1) egonen dira. Ez da ezarri ibilbidea osorik egiteko denbora-mugarik. Parte-hartzaile bakoitzak lasterketako distantzia aukeratu ahal izango du 3,6 km-ko ibilbide laburra (ibilbideari buelta bat emanez) edo 7,2 km-ko ibilbide luzea (ibilbideari bi buelta emanez) aukeratuz.

3 art. – Nahi duten pertsona guztiek parte hartzen ahal dute, federatuak izan ala ez, sexu-bereizketarik gabe.

4 art. – Eguesibarko Udaltzaingoa arduratuko da sarbideak kontrolatzeaz eta kaleak ixteaz behar den guneetan. Antolatzaileek eta boluntarioek ibilbidea kontrolatu eta zainduko dute.

5. art.- Oinarrizko bizi euskarria duen anbulantzia bat egonen da lasterketan. Parte-hartzaileek ibilbidea egiteko behar diren baldintza fisiko egokiak izan beharko dituzte.

6. art. Izena emateko epea 2026ko otsailaren 16an hasi, eta 2026ko martxoaren 6an bukatuko da, 12:00etan. Izena emateko, 2 € ordaindu beharko da, eta esteka honetan egin beharko: <https://www.rockthesport.com/es/eventocarrera-lasterketa-8m-valledeegues-eguesibar>

7. art.- Kamisetaren eta dortsalaren banaketa martxoaren 4tik (asteazkena) martxoaren 6ra (ostirala) izango da, 17:00etatik 19:30era, Sarrigurengo kirol hirian, eta martxoaren 8n (igandea) 9:00etatik 10:00etara, lasterketatik irteteko eremuan. Bizkarreko zenbakia hartzeko, izen-emate ofiziala izateaz gain, izena emateko plataforman ematen den QR kodea aurkeztu beharko da. Zenbakia ezin izanen da ez moztu, ez tolestu, eta atletaren bularrean paratu beharko da, erabat zabalik.

8 art. – Proba lehiarik gabeko kirol ekimena denez, ez da saririk izanen

9 art. – Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izanen parte-hartzaileek beren zuhurtziaz ezaren edo zabarkeriaren ondorioz beste inori edo beren buruari egin diezazkieketen kalteetan. Hala ere, izen-emate ofiziala egin duten parte-hartzaileak erantzukizun zibileko aseguru-poliza baten babespean egonen dira, antolatzaileek berek kontratatuko baitute aseguru hori. Federatu gabeko parte-hartzaileek istripuetako aseguru-poliza baten babesa izanen dute, lasterketan berean gertatutako istripuak bere gain hartuko dituenak. Ez ditu bere gain hartuko, ordea, eritasun edo aje ezkutuko baten ondoriozkoak, ez eta zuhurtasun ezagatik, zabarkeriagatik, legeak edo araudi honen artikuluetan dioena ez betetzeagatik gertatuak ere. Era berean, aseguru-poliza horrek ez ditu estaliko lasterketa egin den lekura iristeko edo handik itzultzeko bidean gertatutako ezbeharrak.

10 art. – Parte-hartzaile guztiek adierazpen bat eginen dute esanez lasterketan parte hartzeko sasoian direla eta bere erantzukizunaren pean dihardutela, eta probaren antolatzaileak erabat salbu uzten dituztela erantzukizun guztietatik. Antolatzaileek azterketa medikoa edo esfortzu-proba egitea gomendatzen diete holako probetan sekula parte hartu ez dutenei edo inolako ariketa fisikorik egin gabe denbora asko daramaten parte-hartzaileei. Zerbitzu medikoak eta antolatzaileek eskubidea izanen dute arazo fisikoren bat duten atletak probatik ateratzeko.

11. art. – Proba ez da bertan behera utziko eguraldi txarragatik. Egoera benetan larria bada, antolatzaileek erabakiko dute zer egin.

12. art. – Lasterketa 10:00etan hasiko da, eta antolatzaileek irteera mailakatzen ahalko dute jendetzarik ez egoteko.

13.- art. – Proba honen araudiaren argibideak ematea antolatzaileei dagokie. Izena emandako inork datu pertsonalak manipulatu, aldatu edo faltsutzen baditu deskalifikaturik geldituko da. Antolatzaileek beren esku dute araudiaren edozein puntu, osorik edo parte batean, aldatzeko eskubidea, hala nola orduak, datak, etab., hala egoki jotzen badute.

14 art. – Antolatzaileek eskubidea izanen dute proban zehar hartutako argazkiak hurrengo edizioen publizitatean erabiltzeko.

15 art. – Askatasunez eta beren borondatez parte hartzeagatik eta izena emateagatik, parte-hartzaile guztiek oso-osorik onartzen dituzte arauak eta araudi hau. Era berean, adierazten dute sasoi onean daudela eta beren gain hartzen dutela kirol-saio honetatik letorkeen edozein arrisku.